



Sanblasak Idiazabalen



+60-35%

Antzizar kiroldegian, %35eko beherapena 60 urtez gorakoentzat



ERAZKUNO ERELLA



ERAZKUNO ERELLA



ANTZIZAR KIROLDEGIA



JASO, EQUIPOS DE OBRAS, S.A.

Garabi garaiak eta
eraikuntzaren beharrizanei
aplikatutako teknologia
modernoak

✓ **Fabrikazioa**

✓ **Salmenta**

✓ **Alokatzea**




AENOR-ek
onarturiko
entrepresa
ISO 9.001

jaso@jaso.com

☎ 943 18 70 00 - Faxe: 943 18 70 20

N-1, 415 Kma. IDIAZABAL



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



AMPO S.COOP
BEASAIN Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritun aleazioak.

AENOR-ek onarturiko empresa ISO 9002

☎ 943 18 80 00 - Faxe: 943 18 81 30

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 943 88 60 50 - Faxe: 943 88 88 47

Non zer

8. Antzerki garaia Ordizian eta Beasainen

3: HAMABOSTALDIAN NABARMEN:

Antzerki garaia

4-6: BERRIAK LABUR

9: KATE MOTZEAN: Irantzu Arrizabalaga.

10-11: IDIAZABALGO
JAIK, egitaraua.

12-13: Nazario Telleria
Idiazabalgo aita-seme
txistulariak.

14: Idiazabalgo Gazte
Asanblada.

15-23: KRONIKAK:

15: Idiazaba

16: Zegama

16: Zerain

17: Ataun

18: Beasain

19: Zaldibia

20: Segura

21: Ordizia

22: Gabiria

22: Ormaiztegi

23: Lazkao

23: Mutilola

24: Sanblasetako kirol
ekitaldiak.

26-27: AGENDA

28-20: DEBALDEKO IRAGARKIAK

30: FOTO ZAHARRA:

Idiazabalgo 1977ko
kintoak.

Aurreko alean kaleratu genuen bezala, Beasaingo eta Ordiziako udaletako Kultura Sailek antolatutako Antzerki garaia zikloa martxan da dagoeneko. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzerti sarearen lankidetzekin antolatua da zikloa. Kanpaina horrek 1995eko lehen hiruhilekoan eman zituen lehenengo urratsak; beraz, aurtengo Goierriko antzerki denboralditxoaren zortzigarren ekitaldia da.

Beasain eta Ordiziako udaletako ordezkariak adierazi digutenez, "iazko ekitaldiaren balorazioa oso positiboa izan zen, hori dela eta, aurtengo ere erabaki da Beasain eta Ordiziaren arteko lankidetzarekin aurrera egitea. Helburuak aurreko ekitaldietako berberak dira: batetik, antzerki errepresentazio-tara joateko ohitura galdu duen publiko berreskuratzea; bestetik, publiko berria erakartzea, gazteak batik bat. Arestian adierazitakoa lortzeko, urtean zehar kalitatezko talde erakargarrien emanaldiak eskaintzeko asmoa dago".

8 emanaldi

Urtarriletik apirilera, 8 antzezlan izango dira ikusgai, Beasaingo Usurbe Antzokian eta Ordiziako Herri Antzokian. 8 taldeetatik 6 Euskadikoak dira, eta 2 kanpokoak. Antolatzaileek taldeak eta obrak hautatzeko irizpidea "kalitatea izan da eta kontuan hartu dira muntaia, lengoaiari emandako trataera, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta profesionaltasuna eta obren arrakasta. Izan ere, egitaraua arrakastatsua gertatzeko gorabehera horiek guztiak hartu behar dira kontuan".



Sarrerak 7 edo 9 eurokoa da emanaldi bakoitzeko. Abonuak ere badaude denboraldi osorako, 48 eurotan.

Egitaraua

Urtarrilak 25: Psicosis Gonsales taldearen 'Monologos de humor', 22:15ean, Usurbe Antzokian. (gaztelaraz).

Otsailak 8: 22:15ean, Herri Antzokian Txalo taldearen 'Bambulo'. (Euskaraz).

Otsailak 22: 22:15ean, Usurbe Antzokian, Txalo taldearen "Dulce Puta". (Gaztelaraz).

Martxoak 8: 22:15ean, Herri Antzokian, Txalo taldearen 'Sobre los perjuicios del tabaco'. (Gaztelaraz).

Martxoak 22: 22:15ean, Usurbe Antzokian, Maskarada taldearen 'Kontenedore baten istorioak'. (Euskaraz)

Apirilak 12: 22:15ean, Herri Antzokian, Gluglu Producciones taldearen 'Urak dakarrena glugluglu'. (Euskaraz).

Apirilak 26: 22:15ean, Usurbe Antzokian, Tentazioak taldearen 'Komerika'. (Euskaraz).

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19

E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Ederne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Almar Maiz eta Mari Flor Mendizabal. Azaleko argazkia: Irantzu Arrizabalaga.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria



CAFen kontratu berria

Beasaingo CAFek Madril eta Bartzelona arteko abiadura handiko 16 tren egingo ditu. 50 milioi euroko kontratua sinatu du. Alstomekin elkarlanean egingo dituzte trenak.

Kooperatibismoari buruzko jardunaldiak


Aste honetan, Goilan Fundazioak antolatutik, kooperatibei buruzko jardunaldiak egin dira Goierri Lanbide Eskolan.

Arriarango urtegia huts samar

Azkenaldia euri gutxi egin du gurean eta Arriarango urtegia huts samar dago. Erdetik bera dago.

CAF-Elhuyar beka

Urtarrilaren 11n banatu ziren Lasarten CAF-Elhuyar Zientzia Dibulgaziorako VIII. sariak. Bi urtetik behin liburu bat idazteko proiektu bat saritzen da eta oraingoan Donostiako Esten irakasle ari den Iñaki Peña saritu dute. Enpresa txikienei buruzko azterketa proposatu du. Dibulgazioko artikuluen sariei dagokienez, Leire Eskajedo getxotarraren 'Klonazio terapeutikoaren mitoia: egi eta gezurrak' lana izan da saritua. 25 urtetik beherakoentzako sari berezia izan da aurtan. Gorka Oriveriren 'Tumore-angiogenesis' lanari egokitu zaio.



Ormaiztegiko zubia monumentu izendatuko du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak, Ormaiztegiko tren zubia monumentu izendatzeko prozesua martxan jarri du. 1992. urtean hasi ziren tramiteak baina geldituta egon da, artean funtzionamenduan zegoen eta zubia. Monumentu izendapenak burdin eta harritzko azpiegitura honen ezaugarri bereziak babestu nahi ditu. 1863. urtean egina da Ormaiztegiko zubia. 291,5 metroko luzera eta 34 metroko altuera du.

Euskal Herriko asto txapelketa

Urtarrilaren 13an jokatu zen Lazkaon Euskal Herriko asto txapelketa, Ansoategi elkarteak antolatuta. 80 asto aurkeztu ziren. Lehenengo saria Hernaniko Gurrutxagarentzat izan zen; bigarrena Zumarragako Zaldituarentzat eta hirugarrena Baliarraingo Zubeldiarentzat.

www.andramendi.com

www.andramendi.com izango da urtarrilaren amaieraz geroztik Beasaingo Ikastolaren web orriaren helbidea. Aurreko urtean, www.kilometroak.com orria sortu ondoren, aurtengoan ere, Argia astekariarekin batera landu dute orria, eta nahi duen guztiak eskura izango du Beasaingo Ikastolari buruzko informazioa: Hezkuntza-Proiektua eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Gainera, iazko Kilometroekin zegoen lotura mantenduko dute eta hartara noiz-nahi entzun ahal izango dute Kilometroetako abestia, edo jaso ahal izango dute iazko Kilometroei buruzko informazioa.

Gainera, Beasaingo Ikastolak argitaratua du aurtengo egutegia. Nahi duenak eskura dezake 4 euroren truke, Beasaingo Ikastolara deituz : 943-889617.



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN



GOIERRITARRAren 300.000 pezetako bidaia Elisabete Iruinentzat

8.457 zenbakia zuen GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko errifa, Ordiziako Elisabete Iruinek erosi zuen. Beasaingo Udal Euskaltegian euskara ikasten ari da Elisabete eta bertan erosi zuen errifa.

Irailaren 30era bitartean izango du Elisabete Iruinek, nahi duenean, nahi duen lekura, nahi duenarekin joateko aukera. 300.000 pezeta izango ditu horretarako Urola Bidaiak-en gastatzeko.

Senarrarekin batera, Parisa joateko asmoa azaldu du Elisabetek. Ez da ez leku txarra, maitasunaren hiria oporralditxo bat pasatzeko.

Gauzak honela, lerro hauetatik, ondo pasa dezazuela opatzea besterik ez dagokigu. Eta jakina, eskerrik asko GOIERRITARRA aldizkaria laguntzeagatik, errifak erosiz.



Urtarrilaren 21ean Beasaingo Urola Bidaiak-en egin zen sari banaketa. Argazkian, ezkerrean, Aitor Asurmendi Goierritarrak Kultur elkarteko lehendakaria, erdian Elisabete Iruin eta ezkerrean, Iker Garmendia Urola Bidaiak-eko arduraduna.


Errifak erosi dituzten guztiei ere, eskerrik asko GOIERRITARRA aldizkaria laguntzeagatik.



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

IBAI ONDO



AROTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurria
Mota guztietako arotzegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Beasaingo San Silbestre

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, iaz ere korrika pasatu zuten makina batek urte zahar goiza Beasainen. Batzuk larri, beste batzuk lasai, aurrean zenbait, mordoxka erdi parean, atzerago ere baziren.

Ttipi-ttapa, ttipi ttapa guztien ondoren, sariak; bati, besteari, haratagokoari, etab. Hots, zergatik ez zion antolakuntzak lehenengo neska Beasaindarrari saririk eman?

Presupuesto arazoak ala diskriminazio arazoak?

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, eguberrien solstizioa; urrunak ere etxeratuko ditugu, apika, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa.

Jon Agirre (Lazkao)

Goierritar guztiei eskerrak

Beasaingo Ikastolak

Urte berrian sartuak gara eta ez dugu Beasaingo Ikastolak izan dituen laguntzaile guztiei zoriontzeko postalik bidaltzeko denborarik izan. Izango genuen, bai, iazko ikasturtea arrunta izan balitz, baina zoritxarrez, urte zaharra egiteko askorekin amaitu genuen.

Urriaren 7an Beasainen Kilometroen 25. urteurrena ospatu genuen. Ospakizun bikaina izan zen, eta hainbeste jenderen lanak merezi zuen arrakasta lortu genuen. Egunean bertan 1.500 lagun baino gehiago izango genituen lanean. Horietatik, 1.000 gutxienez, gure eskualdekoak. Aspaldian ez bezala Kilometroetan agerian geratu zen ikastolaren festa euskararen eta herriaren festa dela, eta euskaldunak behar dugula eta nahi dugula, elkartasun espazio euskaltzalea.

Urtarrilaren hasieran, Kilometroen balorazioa egiterakoan, behin eta berriz azpimarratu izan dugu zer nolako oroitzapena utzi izan digun ezagutu ere egiten ez genuen hainbat eskuren laguntza eta berotasunak; tamalez, gure ikastola hondoratzeko ahaleginetan aritu direnen ankerkeriari aurre egiteko behar-beharrezkoak gertatu zaizkigun. Kilometro eguna arrakastatsua izan zen, eta bertan jasotako diruak arnasaldi bikaina eskaini dio gure Ikastolari.

Ziur gaude, horregatixe, goierritar askok ezin duela ulertu zergatik Kilometroak eskura genituen urtean, DBHrako lokalak erosita geneuzkan urtean joan zaigun jendea kanpora. Barruan geratzen garenontzat ere ez da ulergarri eta joan diren asko eta askok esandako mila gezurren artetik ez dago egia zantzurik ateratzerik. Garbi dagoena zera da, aginte eta botere erakustaldi bat bideratu nahi izan zutela, eta zuhaitz baten azpian tiro egin ezkerro, txoririk akabatu ez arren, txoriak zalapartan joan egiten direla. Guri jotako tiroa zurrumurrua izan zen. Eta goierritarrok horrenbeste zurrumurru entzungo zenuteenez, zenbait argitasun eman ez amaitu nahi dugu gutun hau: ikastola-zale eta auzolanean sinesten dutenek identifikatu ahal izan ditzaten edozein gauzaren gainean agintea eta interes pertsonalak jarritzen dituztenak:

✱ Ikastolatik atera ondoren ere Ikastolan agintzen saiatu dira, eta bere burua zuritze-ko geratu garenez gaizki esaka aritu dira. Ez dute, ordea, inon esplikatu

✓ Zergatik atera zuten Ikastolako dokumentazioa ikastolatik kanpo: akta liburuak, bazkide-liburuak, eskriturak...

✓ Zergatik burukatu diren urriaren laz geroztik legeztatuta dagoen Andramendiren Juntak lortu dituen kontzertu eta dirulaguntzak kentzen.

✓ Zergatik ekin dioten etengabeko kanpaina bati Ikastolan dauden umeak kanpora atera daitezkeen, zurrumurruak zabalduz (batean urrian ikastola itxiko zela, hurrengoan urtarrilaren 7ko data eta ondorengoan martxokoa erabiliz) lehen Kilometroak egingo ez zirela zabaldu zuten bezala.

✱ Ikastolatik atera ondoren ere Ikastolako dirua erabili dute

Zergati hori --bere bekatua-- da argitzen ez dutena; batzuen interes pertsonal eta korporatiboak mugitzen dituzte, barrenetik, azaleko besterik ez diren ekintzak. Zeren truke? Sekretu hori oso ondo gordea dute.

Honenbestez, Beasaingo Ikastolak eskerrak eman nahi dizkizue hainbeste zurrumurruren aurrean zuen konplizidadearekin laguntzen jarraitu duzuen guztioi. Kilometroetan beharrezkoa izan zen eta berotasun horrek eman digu etsipenik ez hartzeko adinako indarra. Beasaingo Ikastola izateko sortu baitzen eta sortzeko baita.

Jose R. Anuntzibai
Andramendi, Irakaskutza Koop:
Lehendakaria, Juntaren eta
Beasaingo Ikastolako guraso
guztien izenean.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA


☎ 943 88 72 76



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

Diseinuan beti
aintzindari

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN



Hauek dira aurtengo irabazleak.
Zorionak zuei eta zorte gehiago bestei hurrengo urterako

Nekazaritza-turismoko baserri
batean asteburuko egonaldia:

Talasoterapiako zirkuitua:

Ane Barcenilla (Beasain)
Puri Oiarbide (Segura)
Jose Pedro Janeiro (Zumarraga)
Imelda Martinez (Zumarraga)
Irati Aldanondo (Lazkao)

Jesusa Alustiza (Segura)
Isabel Mujika (Beasain)
Justino Blazquez (Ordizia)

Sonia Araguzo (Legazpi)
Itziar Olano (Legorreta)
Leire Soto (Ordizia)
Maite Rubio (Ordizia)
Joseba Arruabarrena (Zaldibia)

Fedemaile publikoaren aurrean egindako zozketa.

Eskerrik asko

Eguberrietako lehiaketan
parte hartu duzuen guztioi
1.000 lagun baino gehiago!!



"GIOKELAREN BERMEAK KONFIDANTZA EMATEN DU"

GIOKELAK URTEBETE EGIN DU. GIPUZKOAKO HARATEGIETAN EROSI GENEZAKEN OKELA, GIOKELA, BASERRITAR ETA HARAKINEN ARTEKO ELKARLANAREN FRUITUA DA IDIAZABALEN HARATEGI BAT DUGU, KALE NAGUASIAN KOKATUA DAGOEN **LUIS MARI GOIA HARATEGIA**. BERAREKIN SOLASEAN ARITU GARA.

- **GIOKELAREN LEHEN URTE HAU NO-LA BALORATUKO ZENUKE?**

Urte oso emankorra izan da. Kontsumitzaileen artean oso harriera ona izan du eta gure bezeroek benetan eskertu dute berme osoko eta ziurtatutako haragia erosi ahal izatea.

- **GIOKELA ZIURTATUTAKO HARAGIA DELA DIOZUE. ZER ESAN DUZUE ZEHAZKI ETA ZER DA ESKATZEN DUZUE-NA?**

Ziurtatutako haragia izateko, prozesu guztia, baimendutako erakunde **INPARTZIAL** batek kontrolatua izan behar du. Kontrol bide honek, kontsumitzaileari **SEGURTASUNA** eta **KALITATEA** bermatzen dio. Ikuskatzaile lanak egiten dituen erakunde hau, Certicar da. Bere eginkizuna, kate osoa kontrolatzea da: ikuitutik hasi eta harategian sal-



tzen dugun azken xerraraino. Giokelaren ziurtagiria duen haragi guztia, Gipuzkoako baserrietan gizen dutako haragia denez, oso erraza zaigu prozesu guztia kontrolatzea, esku-eskura daukagu eta.

- **ZER JAN DU BA GIOKELA MARKAKO OKELA EMATEN DUEN GANADUAK?**

Elikadura guztiz naturala. Animalia eta arrain irinik, berriz, ezta usaitu ere ez du egiten gure ganaduak, are gutxiago hormona eta antzeko sustantziarik. Horrek ematen digu kontrol guztiak lasai pasatzeko segurantzia. Badakizu, zer jan, hura izan!

- **BAINA ZER DA CERTICAR ERAKUNDEA?**

Certicar erakundea, behikiaren kontrol prozesuak ziurtatzeko, estatuan (45.011 arau europea-

rraren arabera) baimenduta dagoen erakunde bakarra da. Gu ere, honek zertifikatzen gaitu, noski. Kontrol zorrotz hauek, eskeintzen dugun produktuan oraindik eta konfidantza gehiago izatea eragin digute.

Zoritxarrez, Euskal Herrian oraindik ez dugu Certicar-en mailako erakunderik. Epe laburrean horrelakorik izatea ezinbestekoa ikusten dugu

- **HEMENDIK AUERRERA ZEIN ASMO DITUZUE?**

Giokela gehiago sendotzea eta zabaltzea nahi dugu, hori bai da kontsumitzaileak nahi duena. Honekin batera, harakin eta baserritarren arteko elkarlana sendotzea lortu behar da alderdi guztien lanaren errekonozimendu eta errentagarritasuna lortzeko.

"Giokelako harakinak kontrol zorrotzak pasa behar ditugu"

"Zoritxarrez, Euskal Herrian ez dugu baimendutako erakunde inpartzialik"

- **Jai egitaraua prestatzen noiz hasten zarete?**
- Urriaren erdi aldera hasten gara.
- **Herritarrek parte hartzen al dute festak antolatzen?**
- Bai, Festa Batzordea osatzen dugu herritarren artean.
- **Eta ekitaldietan?**
- Baita ere, partehartze handia izaten da herritarren partetik.
- **Zein izaten da Sanblasetako ekitaldirik arrakastatsuenak?**
- Adin bakoitzak bere ekitaldi arrakastatsua izaten du.
- **Zein duzu egunik edo ekitaldirik gustukoena?**
- Koadrila eguna, dudarik gabe.
- **Jaiez gozatzeko aukerarik izaten al duzu?**
- Bai noski, lo orduak falta izaten ditut.
- **Idiazabalgo jaiak hotz fama daukate. Fama bakkarik al da?**
- Ez, baina festa gogoak beti laguntzen du.
- **Hotzari aurre egiteko errezeta:**
- Herriko plazan dantza egitea.



Irantzu Arrizabalaga
Idiazabalgo
kultur teknikaria

- **Astelehena pasatzeko errezeta:**
- Salda beroa eta astearte jai.
- **Goierritarrak Idiazabalgo jaietara joateko gonbitea egin ezazu:**
- Idiazabalen festa giroa San Blasetan izaten da. Etorri nahi duen orori, ongi etorri beroa.

KONTXI HARATEGIA MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14 ☎ 943 18 70 78 IDIAZABAL

BATZOKI TABERNA

Kalamaretan espezialdua

**Nagusia, 24 ☎ 943 18 71 25
IDIAZABAL**



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

MUJIKA HARATEGIA

Odolki eta txorizoetan berezitasuna

Kale nagusia, 2 ☎ 943 18 71 82 IDIAZABAL

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

San Blas jaiak Idiazabalen

Urtarrilak 26, larunbata:

11:00etan: Herri mailako plater hausketak.

15:30ean: Herri mailako plater hausketak.

18:30ean: Sagardo dastatzea, herriko plazan.

19:00etan: Ataungo bertso-lari gazteen saioa, plazan.

23:30ean: Eztanda taldearekin dantzaldia, plazan.



20:00etan: Futbito partiduak Zelaako kiroldegian, 2. mailakoa.

24:00etan: Helduen danborrada.

Ondoren: Sakatrik taldearen dantzaldia.

Urtarrilak 27, igandea:

11:00etan: XXII. Herri kro-sa.

17:00etan: Umeen danborrada.

18:30ean: Buruhandiak.

Urtarrilak 31, osteguna:

19:30etan: San Blas jaiei hasiera emateko luncha Jubilatuen Elkartean.

Otsailak 1, ostirala:

17:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, 'Aupa Kintxo' ikuskizunarekin, pilotalekuan.

19:00etan: Futbito txapelketako finala.

20:00etan: Jaien hasierako pregoia, txupinazoa eta Axariaren jaitsiera, plazan.

20:00etan: Ohiko kanpai bueltakoak, Txistularien kalejira eta buruhandiak.

20:30ean: Sakatrik taldearekin jai giroa.

21:30ean: Danborrada nagusiko taldeen afaria, plazako karpan.

21:00etan: Futbito partiduak Zelaako kiroldegian, 2.B mailakoa.

Otsailak 2, larunbata: Kandelari eguna:

12:00etan: Herriko dantzari txikien saioa. Jarraian, helduen txanda izango da.

14:30ean: Bazkaltzeko ardoa eta mahaia jarriko dira plazan, bertan bazkaldu nahi duten guztientzat.

16:00etan: Goitibehera txapelketa, kanposantu paretik elizara arteko bidean.

17:00etan: Profesionalen Eskuzko Binakako Txapelketa-ko Pilota partida, Igarondo

Okindegia - Etxategia - Kafetegia

Xalco

Jai zoriontsuak opa dizuegu!

☎ 943 187 734
IDIAZABAL

**Arropa - Jantzidenda
Konplementuak**

Bikuña, 1 ☎ 943 18 75 27
IDIAZABAL

**FRONTOIKO
EDARITEGIA**

Festa onak pasa!

Mateo Mujika Kalea
☎ 943 18 77 53 **IDIAZABAL**

JERONIMO-ENEA

**Taberna
eta
gasolina surtidorea**

☎ 943 18 74 96
IDIAZABAL

**ZEPAI
JATETXEA**

☎ 943 18 71 98
IDIAZABAL

**GAZTELU
Jatetxea**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ 943 18 71 93
IDIAZABAL

Kultur etxean erakusketa

Herritarrek urtean zehar ikastaroetan eginiko eskulanak ikusteko aukera izango da Kultur etxean.

pilolekuan: Titin-Zezeaga Olaizola II-Errasti.

19:30ean: Meza eta kandela bedeinkazioa.

20:30ean: Txistulari alardea Zelaako kiroldegian.

23:30ean: Drindots.

Otsailak 3, igandea:

San Blas eguna:

Koadrilen eguna:

9:30ean: Probintzia arteko bola txapelketa.

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia, Parrokiako koruak abestuta eta Erroskila bedeinkazioa.



Ondoren, hamaiketako Apaiz etxean.

11:30ean: Herriko haurren txirrindulari proba.

12:00etan: Paella prestatzen hasiko dira herriko plazan.

12:00etan: XV. Herriko txirrindulari proba.

13:30ean: Beti Argi bandaren kalejira.

14:00etan: Paella jatea. Beti Argi bandaren kontzertua.

16:30ean: Probintzia arteko bola txapelketa.

16:30ean: Koadrilen arteko jokoak. Jarraian, Incansables txaranga.

19:00etan: Binakako Urrezko Aizkora sariko finalerdia, Igardondo pilotalekuan.

21:30ean: Herri afaria.

24:00etan: Akelarre taldea.

Goizaldera: Txokolate jana plazan.

Otsailak 4, astelehena: San Blas Txiki eguna: Ezkonduen eta umeen eguna:

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00etan: Umeentzako jokoak kiroldegian.

11:30ean: Ohiko hamaiketako herriko plazan.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Arratsaldean Mujika jatetxean jarraituko dute, Juanito eta Txurdo txiste kontalaria lagun dituztela.

18:30ean: Talo eta sagardo dastatzea herriko plazan.

19:30ean: Buruhandiak.

19:30ean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

24:00etan: Axariaren igoera eta agurra, datorren urtera arte.

ODEI

Edaritegia

Jai zoriontsuak denoi!

Nagusia, 29 ☎ 843 18 77 37
IDIAZABAL

KLIK ESTANKOAK

festa zoriontsuak opa dizkizue!!!



- Fax publikoa
- Fotokopiak
- Opariak

Tel.: 943 187 373
Faxa: 943 187 729

PERIKO

ARRANDEGIA

Kale Nagusia, 16
☎ 943 18 71 13
IDIAZABAL

ALAI

Jatetxea



Jai zoriontsuak!

Etxegarate gaina

☎ 943 18 76 55

IDIAZABAL



MUJIKA

jatetxea

Kogote erreak,
txuletak

Nagusia, 46 ☎ 943 18 73 19
IDIAZABAL

AXARI

jantzi denda

Jai zoriontsuak denoi

☎ 943 18 72 84

Nagusia, 15
IDIAZABAL

Nazario Telleria aita-semeak: txistuaren doinua bihotz-bihotzean

Aita abenduaren 16an hil zen, 88 urte zituela

Nolako egurra, halako
ezpala esaera zaharra
inoiz baino hobeto
dator momentu honetan.
Nazario Telleria aita-
semeek, ofizio eta afizio
berdinekoak. Idiazabalen,
txistulari ofizialak izan dira
eta dira, txistu jotzaileak
eta txistu irakasleak.
Nazario aita, abenduaren
16an hil zen 88 urte
zituela. Nazario semeak,
eta Iñaki eta Jon bilobek
indartsu eusten diete
txistuaren doinuari.

88 urte zituela hil zen
abenduaren 16an, Nazario
Telleria. Idiazabalen pertso-
naia garrantzitsua izan da.
Txistularia, postaria, ile moz-
tailea... Batez ere txistu mun-
duan nabarmendu da.

Idiazabalen bertan ikasi
zuten musika Bitoriano eta
Nazario anaiek, Jose Galo



*Duela 23 bat urte omenaldia egin zitzaion Nazario eta Bitoriano
anaiei. Euskadiko Orkestra joan zen Idiazabala. Harrezkero utzi
samar eduki omen zuen txistua.*

Zudaire irakasle zutela. Ge-
rora, Bitorianok Madrildik
bueltan egin zituen musika
eta piano ikasketak. Naza-
riok, txistuari heldu zion eta
Donostiara joan zen, Isidro
Ansorenarena txistu ikaske-
tak sakontzera. Aurretik fam-
ilian, ez zen musikaririk
izan Telleriatarrean.

Bitoriano anaiarekin eta
Felipe Gorrotxategirekin ba-

tera, txistulari taldea osatu
zuten. 8 urte besterik ez zitue-
la, Nazario semeak ere txis-
tuaren lehen notak jo zituen.

Idiazabalen bertan eta in-
guruko herrietan makina bat
txistu emanaldi eskaini zituz-
ten Idiazabalgo txistulariek.
Makina bat dantza eginarazi
zuten. "Itsasondo, Ezkio-
Itsaso, Olaberri... festarik
festa ibiltzen ziren. 50 fan-

dango eta 50 arin-arin jakin-
go zituzten buruz. Paperik
gabe jotzen zuten". Idiazaba-
len ere igandero jotzen zuten
txistua. Kalejira goizean eta
arratsaldean, hiru aldiz kon-
tzturtutxo, tartekatuz", esan
digu Nazario semeak. Gaur
egun baino dantza gehiago
egiten omen zuen jendeak or-
duan.

Txistulari izateak bazuen
onurarik: herrietako jaietan
jana besterik ez zuten izaten.
"Txistua jo eta jan. Dirua gu-
txi izaten zen baina egun guz-
tia jaten pasatzen genuen",
aitortu digu Nazariok.

Ikasitakoa erakusten ere
berehala hasi ziren, bai Naza-
rio aita eta bai Nazario se-
mea. Nazario semeak adiera-
zi digunez, "lanetik aterata,
haurrak eskolatik ateratzen
zirenean, solfeo pixka bat
erakusten zien aita. Gaur
egun Kultur etxea dagoen le-
kuan zegoen eskola publikoa.
Hango gelatxo batean, esko-

KAFA TXIGORTZEN DUGU



KAFA eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.

ZURGINDEGIA



X LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

X ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



latik ateratzen zirenei eskola ematen zien. Gehienak handik pasatzen ziren. Gaur bezalako eskolarik ez zen". Nazario semea bera 14 urte zituela hasi zen musika eskolak ematen. Berak ikasi ahala, erakutsi egiten zuen.


Idiazabalen Telleriatarren aurretik txistularik izan zena-
ren aditzerarik ez du Nazario. Pantaleon Zabala alkateak zerbait jotzen omen zuen baina beste inoren aditzerarik ez du.

Txistulari, postari, ile moztaille, alkateorde... lan-gintza asko izan zituen Nazario aitak. Alkateorde izan zen, Ursuaran Idiazabalen atxiki zitzaionean.

Nazario semeak ere, eus-

ten die txistulari, postari eta ile moztaille lanei. Auto eskolako irakasle ere izan zen. Hori bai, guztietan gustukue-
na, txistulari lana du. Txistua eta musika, sakon sentitu eta bizi ditu idiazabaldarrak. Bere bi semei ere erakutsi eta itsatsi die musikarako zaletasuna. Gazteena txistularia eta zaharrena perkusio jolea da. Pena bat badu dena den Nazario semeak, hiru belaunaldiak elkarrekin txistua jo ez izana.

Abenduaren 16an hil zen Nazario aita, 88 urte zituela. Nazario semeak, omenaldirik onena eskaini zion: hileta elizkizunean, organoa jo zuen, elizkizuna, txistuarekin Gernika joz amaitu zuen.



Jaietan lan asko

Txistulariak lan ugari izaten du urtean zehar herrian, baina batez ere herriko jaietan. Txistulari alardea egiten dute festetan, abesbatza lagun dutela. Txistua jo eta abesbatza zuzentzen, gora eta behera, gustura ibiltzen da Nazario. Ofizio gogor samarra dela ere esan genezake, batzuek jai dute-

nean eurek orduan izaten baitute lana, askotan gainera goizeko ordu txikietan. Goiz eresia, kalejira... Danborradan ere parte hartzen dute txistulariek, Nazariok berak konposatutako doinua jotzen baita.

Abesbatzako zuzendaria ere bada Nazario semea, garai batean bere aitak betetzen zuen postua. Bitoriano osabak, organoa jotzen zuen. Lan hau ere, Nazariok betetzen. Idiazabalgo musikaria dela, garbi dago.

San Blas txiki egunean, arratsaldean, hartuko du deskantsua Nazariok, orduan hasiko da festa berarentzat.

Herriko inaugurazioetan ere txistularia izaten da falta ezin den pertsona. Aitortu digunez, amorratzen dago Etxegarateko inaugurazioan txistua jotzeko.

Segurako Euskal Herriko dantza txapelketako txistulari ofiziala ere bada Nazario, Joxe Mari Telleriarekin batera. 25 urte daramazki lan honetan. Iaz, 25. urteurrenean, oroigarri bana eman zioten.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

San Blas jai
zoriontsuak
guztioil

Garbitasunak

OXEPI

☎ 943 88 96 67 **ZALDIBIA**

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Idiazabalgo Gazte Asanblada: Gazteen problematika tratatu eta herriari bizitasuna ematea helburu

Idiazabalgo Gazte Asanbladaren aldi berria, duela hiru urte hasi zen. Aurretik ere hasia zegoen mugimendua martxan baina hainbat arrazoi medio, ez zuen aurrera egiterik izan. Herriko gazteak elkartu eta Gazte Asanblada berriz ere martxan jartzeko borondatea azaldu zuten. Gazte problematika eta herriari bizitasuna ematea dituzte helburu nagusiak.

"Hasiera batean gure jarduerak modu egokian egiteko lokalik ez bagenuen ere, gogo biziz ginen denok eta honek indarra eman zigun. Idiazabalen mugimendu bat sortu nahi genuen, Idiazabalgo gazteriak zituen arazoei erantzun nahi genien, korrante alternatibo bat sortu nahi genuen, gazte denak lekua edukiko zuen korrante bat, herria gazte ikuspuntutik begiratua izateko tresna izan nahi genuen", diote Gazte Asanbladakoek.

Urtebeteren buruan gaur egun Gaztetxea den lokala lortu zuten, lehen Jubilatuen elkartearen zena. "Behin lokal hau izanda gure aktibitateen ugaritzea behar-beharrezkotzat jo genuen. Gazte gehiago elkartu ziren Asanbladara. Gure helburu nagusiak; hasierako gazte problematika tratatu eta herriari bizitasuna



ematea mantendu genituen, bestalde aisialdia lantzen hasi ginen eta gure asanbladaren zabaltzea garrantzitsutzat jo genuen". gaineratu du IGAek. Urtero gazte eguna egiteko asmoa atera zen. Bes-

te helburu nagusietako bat beste herrietako gazteekin elazionatzea zela argi zuten. Horrela, Irulegiko irratiairen bidez Garaziko gazteekin harremanetan jarri ziren. Donibane Garazira joan ziren.

Irratsaioa Zirika irratan

Idiazabalgo Gazte Asanbladak Zirika Irratian, bi igandez behin, bi orduko irratia egiten du, 13:00etatik 15:00etara. Hurrengo irratiaioa urtarrilaren 27an izango da.

Aurtengo San Blasetan herrian izango dira Garaziko hainbat gazte. Kanpaldiak ere egin dituzte IGAkoek, herriko gazteen arteko komunikazioa sendotzeko. "Ondorio onak atera ditugu ekintza hauetatik, Gazte Asanbladaren gabiltzan artean giro naturala sortu da eta orain berdina Idiazabalgo gainontzeko gazteekin egin nahi genuke".

"Herriko jaietan gaztetxea herriari zabaldu nahi diogu"

San Blas jaiei garrantzia handia ematen diote IGAkoek. "Urte askotan zehar ikusi dugu idiazabaldarrok talde bat kioskoan jotzen eta plaza hutsik, penagarria iruditzen zaigu hau eta plazan giroa sortzeko asmoz-edo, txosna bat jartzeko intentzioa azaldu genuen. Txosna hau 2000. urteko Sanblasetan jarri zen lehenengo aldiz. Benetan ondorio ederrak eduki zituen, plazan giro polita sortzea lortu zen, plaza berriz ere Idiazabalgo festetan beteta edukitzea lortu zen. Aurten zorritzarrez ez da horretarako aukerarik izango". IGAk gaztetxea zabalduko da festetan, "izan ere, gaztetxea herriari zabaldu nahi diogu. Festak aukera paregabea iruditzen baitzaigu herritarrek, eta kanpotarrek ere bai, gaztetxea ezagutzeko, barrutik ikusi eta gertuago sentitzeko. Hau ikusita, ikusten genuen zaila izango zela plazako txosna mantentzea, lan asko eskatzen baitzigun biok mantentzea, hala ere, ikusita plazako txosnak herriko festetako giroaren alde egiten zuena, mantentzea erabaki zen. Baina hara non gure sorpresa, Udaletik plazako txosna jartzea ez zaigu permititu, biak jartzerik ez dagoela eta. Guk garbi geneukan guk gaztetxean jarri behar genuela taberna, gure urte guztiko helburua herritarak gaztetxea ezagutzea baita, herriko gazteak bertan egotea, herriko gazteak gaztetxea beraien tresna bezala ikustea, herri guztiairentzako dagoen lekua dela azaltzea. Zoritzarrez, aurten ezin izango da plazako txosnarik jarri eta beldurtu egiten gaitu berriz ere plaza hutsik ikustea", azpimarratu dute IGAkoek.



Jaietan ere
preso eta errefuxiatuak
gogoan

Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blas
Kimuren izenean
denok ondo pasa



**ANTI
GARAJEA**

MEKANIKA ETA IBILGAILU KONPONKETA

Guardiko Industrialdea ☎ 943 18 74 83

IDIAZABAL

Sanblasak ospatzekoko prest

Egutegiak hala agintzen duelako, asteburu honetan hasi eta otsaileko bigarren asteburua bitartean San Blaseta eta Inauterietako ekitaldiak izango dira Idiazabalen. Festa batzordeak 7 egunetarako ekitaldiak antolatu ditu.

Berrikuntzak

Aurtengo festetako bi nobedade nagusiak Kandelari egunean, otsailak 2, ikusi ahal izango ditugu. Eguerdian Axari dantza taldeko neska-mutikoen erakustaldiaren ondoren, gazte talde batek egun horretarako apropos prestatutako emanaldia eskainiko du. Arratsaldean berri, aspaldiko urteetan herrian ikusi gabekoa: goitibeherak. Kanposantutik hasi eta elizara bitartean ikusi ahal izango dira arratsaldeko lauretatik aurrera.

Musika

Bost musika talde, musika banda eta txistularien alardea aukeran. Gauetan plazan, Eztanda, Sakatrik, Drindots, Akelarre eta Joselu Anaia taldeak izango dira. Kandelari egunean, inguruko herrietako txistularien alardea Zelako kiroldegian. Igandean, paella janaren inguruan Beti Argi banda ibiliko da.

Haurrak

Herriko gazteenek egun hauetarako kontuan hartu beharrekoak: urtarilaren 27an izango da beraien danborrada. Otsailaren 1ean Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek "Aupa Kintxo" ikuskizuna eskainiko dute. San Blas txiki eguna haurren eguna izango da eta egun horretan barraketan ibiltzea merkeagoa izango da.

Afari, bazkari...

Plazan jarritako karpan bi afari daude antolatuta. Otsailaren 1ean danborradan parte hartuko dutenena eta San Blas egunean Herri Afaria. Paella, bertan jateko aukera ere izango da, eta kandelari egunean bertan bazkaldu nahi duenarentzat ardoa eta mahai jarriko dira. San Blas txiki egunean, bertsolariekin bazkaldu nahi duenak Mujika jatetxean erosi beharko du txartela. Hiru hamaiketako ere izango dira Apaiz Etxekoa, Udalak eskainitakoa eta Jubilatuen Elkarteak urtarilaren 31rako antolatutakoa. Aurtun karpan berogailua ere egongo da.

Inauteriak

Sanblasak bukatu eta hiru egunera, Inauteriak ospatuko dira herrian. Otsailaren 8an, ostirala, herri afaria eta moztorro festa izango dira. Aurreko urteetan hasita, aintzinako tradizioa berreskuratzeko, antolatzaileek moztorro zuri eta beltz janzteko deia egin dute. Herri afarirako txartelak otsailaren 6a, asteazkena, baino lehen hartu behar dira herriko tabernetan.

Tradizioak

Kandelari egunean, iluntzeko 7,30etako mezan bedeinkatuko dira kandelak. Erroskilak berri, San Blas eguneko meza nagusia. 11etan hasita, Parrokiko koruak abestuko du meza.

Errepideak itxita

Igande honetan, urtarilak 27, krosa ospatzen den bitartean herri barruko hainbat bide itxita egongo dira. San Blas egunean, otsailak 3, herriko txirrindulari lasterketa dela eta goizeko 11,30etatik eguerdiko 12,45etara herri sarrera eta irteerako bidea itxita egongo da.

Pilota partida

Kandelari egunean, pilota partida profesionalak ikusteko aukera izango da. Titin III eta Zezeaga, Olaizola II eta Errastiren aurka arituko dira Igarondo pilotalekuan. Sarre-rak, salgai daude dagoeneko pilotalekuan. Astelehenetik ostiralera erosi daitezke arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara. sarrerak 25 euro balio dute eta derrigorrez txanpon berriarekin ordaindu behar dira. Eguneko eta pertsonako sei sarrera har daitezke.

Xabier Urteaga

labur-labur

- Otsailaren 16ko asteburuan **Formigalera eskiatzera** joateko irteera antolatzen ari da Kiroldegia. Hurrengo alean xehetasun gehiago emango dugu, ala ere interesa duenak Lurdes Intxaustirekin hitz egin dezala lehenbailehen.
- Berehala hasiko dira, Segurarako bidegurutzean **errotonda berria** eraikitze lanak. Idiazabaldik Beasain aldera goazela, eskuin aldera dagoen zelaia hartuko du bide berriak.
- Jubilatuen elkarteak **Kallista zerbitzua** antolatu du herriko jubilatuentzat. Hilabeteko hirugarren asteartean etorriko da herrira eta berarengana joan nahi duenak aurretik eman beharko du izena jubilatuen elkartearen. Prezioa, jubilatuei moldatutakoa da.

IZPAR

*Eskolako gaiak,
goxokiak, prentsa.*

Jai zoriontsuak!

☎ 943 18 72 19 IDIAZABAL

ARANTZAZU
arrandegia

☎ 943 18 70 68 - 943 18 76 99
K. Nagusia, 20 IDIAZABAL

JOSE LUIS
arrandegia

☎ 943 80 03 25 - 943 18 76 99
Santa Barbara, 2 ZEGAMA



Otsaila ekintzaz beterik dator

Otsaila bertaratu zaigu eta horrekin batera Santa Ageda eta Inauterietako ospakizunekin hasiera emango diogu Zegaman ere.

Otsailaren 4an, Santa Ageda Bezperako irteera burutuko da, usadio zaharrari eutsiz. Irteera Zine ondotik izango da arratsaldeko 6,30etan. Ekin-tza hau Kultur Etxeak bultzaturik gauzatzen Orkatz abesbatzak laguntza paregabea eskaintzen duela esan behar urtero-urtero. Gainerako herri-tarrok ere ea animatzen garen ohitura zahar honetan parte hartzera.

Otsailaren 8an, "Ostiral argal" delakoan, **Aitxuri Herri Eskolako haurrak moztaroturi-rik** kalean zehar ibiliko dira. Arratsaldeko 4etan Guraso Elkartearen txokolate beroa

emango die, bai haur eta baita bertaratutako gurasoei ere.

Otsailaren 11n, astelehenean, 17:00etan **Meza**, Jubilatuen elkartearen, Lurdersko Ama Birjinaren eguna dela eta. Ondoren txokolate jatea.

Otsailaren 14an, ostegunean, Azoka Bereziaren barnean, kokaturiko **2. hitzaldia** emango da, 19:30etan Udaltxean. "Apiterapia, erle ziztaden osasun onurak." Hizlaria: Mariano Maioral.

Otsailaren 17an, burutuko den Azoka Bereziaren barnean kokaturiko bi hitzaldietatik lehena izango dugu iluntzean: 19:30etan, **hitzaldia** Udaltxean: "Gipuzkoako Milalorre eztiak". Hizlaria: Isabel Telleria.

Candanchurako irteera

Otsailaren 23rako Ameztu Mendi Elkartekoek Candanchurako irteera prestatu dute, eskiatzeko egarri daudenak, egun batean joan-etorria egiteko moduan. Izenematea otsailaren 10 bitartean egin behar da. Hona hemen xehetasunak: irteera goizeko 5,30etan herriko plazatik. Itzulerako autobusa: arratsaldeko 5,30etan Candanchun. Autobusaren prezioa: 7 euro. Forfaita eta janaria norberaren kontu.

Izenematea: izena Joxean Agirrebengoa (943 800178) edota Mikel Zabaletari (943 801993) eman behar zaie, izena ematerakoan autobusa ordainduz.

Otsailak 17, igandea Erlezaintzari lotutako azoka berezia

Erlezaintzako material erakusketa, erleak bizirik, ezti, argizari, propoleo, sendabelar, produktu ekologiko, Kalkuren laguntzaz, ezti gozaturiko jogurt banaketa doan....

● Gipuzkoako 4. Ezti Lehiaketa. Milalorre eta lore bakarreko modalitatean. Gipuzkoako eskualdekako txapelketetan sarituak izandako 21 partaide etorriko dira, eskualde bakoitzetik 3.

● Eztiz egindako Gozogintza Lehiaketa Erakusketa. Edonork parte har dezake.

● Bazkari herrikoia, bertso-lari, txistulari...

Ikastaroetako izen ematea

Udal Gizarte Zerbitzuetatik honako ikastaro hauek antolatuta dira: Izenemateak Udaltxean (943801351)

Erretzeari uzteko ikastaroa: epea, otsailak 18.

Yoga ikastaroa: epea, otsailak 11.

Eduarne Albizu



San Blas eguna

1988an San Blas basiliza berriztatu zenetik, San Blas eguneko meza eta janari be-deinkatzearen ohitura zaharra

basilizan egiten da.

Aurtengoan, San Blas eguna, otsailak 3, igandea denez, iganderoko Meza Nagusia

elizan izan beharrean, goizeko 11etan basilizan izango da. Ondoren eta Udalak eskainita Liztormendi elkartearen hamaiketako izango da.

Santa eskea

Kantuak esaten duen bezala "Santa Ageda bezpera degu

Euskalherriako eguna etxe guztiak kantuz pozteko aukeratu deguna". Ohitura honi jarraituz aurtengoan ere herriko talde bat otsailaren 4ko iluntzean, etxez etxe kantuz ibiliko da.

Mari Flor Mendizabal

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

INPRIMATEGIA

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

JM Barandiaran Eskolako 4 ikaslek

Lau literatur sari lehiaketan

Ane Dorronsoro, Josu Munduate, Oneka Auzmendi eta Izaro Imaz sarituak izan ziren Donostian ONCEk duen elkartearen joan den ostiralean.

Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako elkarteak antolatutako II. Literatur Lehiaketan, "Elkartasuna 3. Munduarekin" gaiaren inguruan idatzitako idazlanengatik jaso zituzten sariok.

Honela, C kategorian, 1992.etik aurrera jaiotakoena sailean, hiru sariak gure eskolako haurrek eskuratu zituzten. Ane Dorronsororentzat izan zen lehen saria, 15.000 pezetako balioko opari sorta eta diploma. "Sentimentuak eta maitasunak asko balio du" izan zen Anek idatzitako idazlanaren izenburua. Josu Munduatek, "Kain haurra eta

bere lehoia" lanari esker, bigarren saria jaso zuen. 10.000 pezetako balioko opari sorta eta diploma. Hirugarren saria ere ataundar batentzat izan zen. Oneka Auzmendik, "Oporraldian Kenian" idazlanari esker eskuratu zituen diploma eta 5.000 pezetako balioko opari sorta.

Hurrengo kategorian, B kategorian, Izaro Imazentzat izan zen lehen saria "Kalima nire laguna" izenburu zuen bere idazlanagatik. 15.000 pezetako balioko opari sorta eta diploma jaso zituen Izarok.

Labur-labur

Joan den astean hil zen San Gregorion Inazio Aierbe Arziza. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña

Nafarroako GI120 errepideak beti bezala jarraituko du

Intxaurrondo eta Ubarrieta bitarteko bidea

Intxaurrondo eta Ubarrieta bitarteko bidearen inguruan sortu diren gaizki ulertuak zuzendu nahian, Udalak idatzi bat bidali digu etxeetara. San Martingo erdigunea berreskuratzeko planaren barne sartzen den bide honek, ez du egun herria zeharkatzen duen errepidea ordezkatuko. Ez du hori helburutzat, auzogune berrirako bidea izatea baino. Bidarten eta Ubarrin bi zubi berri egingo dira autoentzat eta bidea, Mediki Etxetik Intxaurrondora. Hau Intxaurrondotik Ubarrietara doanari lotuko zaio. Modu honetan, garai batean oinezko gune zen San Martingo plaza berreskuratu nahi da eta bide batez, plazako zubia ere, hasiera batean izan behar zuen erabilpena emango zaio: oinezkoentzako zubia izango da. Oinezkoentzat beste bi zubi berri ere egingo dira: Altzanipe parean bata eta oraingo Zubi Zaharra dagoen lekuan, eliza atzean bestea (uholde arriskua dela eta). Gainera, Intxaurrondo ondoan 28 kotxerentzako lekua izango duen aparkalekua egitekotan dira.

Obra hauen kostua 3 milioi euro (500 miloi pezeta) ingurukoa izango da. Horietatik 150.553 euro (25 milioi pezeta) inguru jarriko ditu Udalak. Gainerakoak Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia eta Europar Batasunetik jasotzea espero delarik.



Aralarko bideak eta txabolak

Jarraian datorren berri hau, joan den urtetik zuek, irakurleok eta, bereziki, aiatarrokin dudak zorra da. Eta zor hori kitatzearen, ekitaldiaren berria atzerapenez badator ere, esan behar da Aralarko artzainen eskaera oraindik ere aktualitatea dugun gai dela.

Atzerapenez diot, izan ere, joan den azaroaren 3an, Aiako Aitzarri elkarteak, Udalaren babesarekin, Artzain Eguna antolatutako baitzuen. Giro politoan eta, egitarauaren barne, "Aralarko bideak eta txabolak" gaiaren inguruan mahai ingurua ospatu zen. Jendea gainezka zegoen elkartearen, Fermin Jauregi moderatzaile lanetan zelaririk, jardun zuten Josu Aldasoro herritarrak, Gipuzkoako artzainen koordinatzaileak, Joan Mari Zinkunegi eta Bixente Gorostidik.

Gipuzkoako koordinatzaileak, bere taldeak gai honen inguruan daramakien dinamikaren historia eta ibilbidearen berri emanez eman zitzaion hasiera elkarrizketari. Behin eta berriz azpimarkatu zuen artzainek mendiarekin duten lotura eta mendiak, gure-gurea dugun latxa ardia mantentzeko duen garrantzia.

Josu Aldasorok pisten beharra defendatu zuen, berez ere gogorra den lanbideari era duin batean aurre egin ahal izateko. Josuk ere, latxa ardiaren beharrak aipagai izan zituen, izan ere "ardi-latxak sanidade, produkzio aldetik mendian aldi bat egin behar du. Gainera artaldearen osasunerako ere beharrezkoa da mendia". Baina gurea dugun hori mantendu nahi badugu, hobekuntzak beharrezkoak direla gaineratu zuen, bai pistei dagokienean, baita txabolei ere. "Guk ere, beste edonork bezala, erraztasunen beharra dugu gizartearekin, familiarekin...harremanetan egoteko eta bizimodu duin bat izateko".

Bixente Gorostidi ere kritikoa agertu zen egungo egoerarekin. Artzaintzaren gainbeheraz hitz egin zuen baina, errua inori bota baino azterketa sakonagoa egitearen aldeko agertu zen. "Nolako artzaintza behar dugu? Artzainek zer prestakuntza behar dute? Izan ere, artzaintzaren arazoa ez da pistak egitea mugatzen".

Aralar ere, berau izanik urte erdiz bizileku, hizpide izan zuten. Besteak beste, bertako karga ganaderoaz hitz egin zuten, egun 18.000-20.000 ardi inguru biltzen baitira Aralarko larretan. Baina beste arazo bat ere bada, ur faltarena.. Eta horrek "ganadua leku batzuetan bakarrik kontzentratzea dakar. Eta ondorioz sasia gero eta gehiago zabaltzen ari da", zioen Josuk. Datu bat, egun Aralarren %26 baino ez da larrea.

Ganadu kopuruaz ere bazuen zer esanik, "garai batean 150 ardi nahikoak ziren familia aurrera ateratzeko. Egun 500-600 dira beharrezkoak familia aurrera atera eta inbertsioei buelta emateko".

Antzizar kiroldegian eskaintza berriak

Udalaren Kirolaren Udal Era-kundeak 2002ko kirolaren kanpaina martxan jarria du dagoeneko. Kirol praktika uztartu egin nahi izan dute gi-za garapena sustatzeko kon-prenezuekin.

Gero eta jende gehiago da kiroldegira hurbiltzen dena, eta dagoeneko 4.100 bazkide ditu. Erabiltzaileen eskaerak eta beharrak ere handitu egin dira eta honi erantzun nahian aurtengo kirol kanpainak berrikuntza asko ditu. Lokala handitu egin behar izan dute behar desberdinetara egoki-tzeko.

Fitness programak eskai-niko dituen jarduera desber-dinak dira berrikuntzetako batzuk. Spinning bike, Body

weight, Fitball training Latin sesion, Aeroboxing, Slow-gym, fitness +60 eta txiki fit-ness dira jarduera desberdi-nak.

Adineko pertsonen ere la-gundu nahi izan die inguru ja-tor eta osasuntsuan kirola eta jolas edo terapia izaerako jar-duera fisikoetan parte har de-zaten. Bazkideztan %35eko beherapena eta kirol progra-maren bat aukeratuz gero ur-teko mediku azterketa bat es-kainiko zaie. Adinekoek, gimnasia, igeriketa eta fitness +60 programetan parte har-tzeko aukera dute.

Eskolameentzako jarduera berri-rik ere izango da: txiki fitness eta gimnasia erritmi-koa.



Jende gehien erakartzen duen kirola aerobik-a bada ere, aukera desberdinak dau-de: helduentzat eta haurren-tzat igeriketa, haurdunentza-ko igeriketa, igeriketa Down, mantenu soinketa, integrala (mantenua + aerobio + fit-ness), bizkarrarentzako tera-pia, kenpo, yoga, saltsa eta aretoko dantzak...

Bazkide izan nahi dutenek izena Antzizar Kiroldegian eman dezakete. Kirol Txarte-la edo bazkideztza egiteko bi aukera daude:

'B' : Basikoa. Kiroldegiko eta estaligabeko igerilekuetara sarrera doan.

'Plus' : Instalazio guztietara sarrera eta alokerak doan eta kirol ikastaro eta programe-tan prezio bereziak.

Urte amaiera arteko or-dainketa osoa egiten dutenek %10eko beherapena izango dute.

18 eta 26 urte bitarteko gazteek Gazte Txartelarekin %35eko beherapena izango dute.

Informazio zehatzagoa nahi duenak telefono zenbaki honetara dei dezake: 943 887900

Nekane Altuna

Loinazko San Martin eguna

Gure herriak Loinazko San Martin Santua du bere zain-dari eta hori gogoratzeko as-moz usarioa dugu otsailaren 5a ospatzearren. Bezperan, San Martinen bederatziurre-nari bukaera emanez, otsaila-ren 4ko ilunabarrean, Santa Agedaren ohorezko kopia kantariak ibiliko dira.

Loinazko San Martin egu-na Odolki Kofradeentzat ere egun berezia da. Aurten be-raien XVII. Biltzar Nagusia ospatuko dute ohiturazko se-nidetasunezko bazkariarekin amaituz. Loinazko San Mar-tin Plazan, 12:00etan. Ber-tan, ohorezko kofradeak izendatuko dituzte. Ondoren, urteko bazkaria egingo dute, Ordiziako Manuel Barandia-

ranen esku dago, egun hone-tarako nahikoa odolki presta-tzea.

Arratsaldean, odolki das-tatze herrikoia egingo da he-rriko plaza ezberdinetan.

Erretiratuek ere baraien festa izango dute. Zapotxin berri taldearekin amaituko dute eguna.

'Ars Ligneá' erakusketa

Igartza jauregian, otsailaren 1etik aurrera, 'Ars Ligneá: Zureko elizak Euskal He-rrian' erakusketa izango da ikusgai.

Errotan, bestalde, errota-gintzako erakusketa izango da. Labea eta errotaren eho-tzeko gela bisitatzeko aukera izango da.

Honi guztiari, Igartza gu-nea bera bisitatzeko aukera gehitu behar zaio. Otsailaren 2an eta 3an, 12:30ean, 16:00etan eta 17:30ean izan-go dira bisita gidatuak.

Idazlan lehiaketako sariak

Otsailaren 3an, XII. Beasain idazlan lehiaketako sari ba-naketa egingo da eguerdiko 12,30etan, Udaletxeko Ba-tzar aretoan.

Oliver Twist musikala

Otsailaren 7an, Oliver Twist musikala ikusgai izango da Usurbe Antzokian, 21:00etan. 9 euro kostatuko da sarrera (aurrez salgai egongo dira). Charles Dic-kensen 'Oliver Twist' nobe-lan oinarritutako musikala da.

'Beasaingo Arte eta fede muina'

Josef Zuñiga etno-grafoak egin duen lan be-rriarren aurkezpena otsai-laren 4an egingo da, 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan. 'Beasain Esku Eskuan' bildumaren 4. zenbakia dugu aipatu liburua. XX. mendeko ondare erlijiosoa erakus-ten digu koloretako ar-gazkiz osatutako 200 orrialdetan. Informazioa parroquia, ermita, kapera eta abarren arabera dago antolatua. Hurrengo alean izango dugu xehetasun gehiago.



Eski irteera Luz Ardidenera

Gailurrerantz kirol elkarteak mendi sailak eski irteera antolatu du Luz Ardidenera. Otsaileko lehen asteburuan izango duzue herritarrek mendi elkartearen eskutik eskiatzera joateko aukera. Otsailaren 2ko, larunbata, goizeko 5,30etan abiatuko da autobusa plazatik eta egun guztia elur artean eman ondoren, bertako hotel batean pasatuko dute gaua. Igande goizean, otsailaren 3an, berriz ere eskiatzeko aukera izango da, eta arratsaldean herrira buelta.

Irteera honetara joateko kostua bitan banatuta dago; batetik, ikasle eta langabetuentzako prezioa eta bestetik lanean aritzen direnena. Ikasle eta langabetuen artean, eskiatzeko materiala alokatu behar dutenek 74 euro (gutxi asko 12.300 pezeta) ordaindu beharko dute eta alokatu behar dutenentzat 90 eurokoa (15.000 pezeta inguru) da kostua. Bestalde, lanean ari direnen artean, materiala alokatzeko premiarik ez dutenei 103 euro (17.000 pezeta gutxi gora behera) kostatuko zaie asteburu pasa hau, eta ez dutenei, berriz, 15 euro gehiago, 118 euro (ia 20.000 pezeta) hain zuzen.

Izena emateko epea urtarriaren 29an, asteartea, bukatzen da. Horretarako, mendi elkarteak Kutxan zabaldua-ko kontu korronte zenbaki honetan sartu beharko du bakoitzari dagokion dirua: 2101.0075.0000.0258.0579. Ordainagiria Kultur Etxeko Lurdesi eman behar zaio.

Norberak eraman beharreko gauzen artean, larunbateko bazkaria, arropa egokia, eskularruak, eguzkitako betaurreko eta krema, txapela etab. daude. Prezioaren barne dagoena berriz, autobusa, eskiatzen ez dakienarentzat lau orduko ikastaroa, istripu aseguru, bi egunetarako erremonteak, larunbateko afaria, gau baterako hotela eta igandeko gosaria daude.

Ikastaroetako deialdi berri bat

Kultur etxeak antolatzen dituen ikastaroen artean, badaude jende aldetik motz antzera gelditu diren zenbait ikastaro, eta horregatik deialdi berri bat egiteko tartea hartuko dugu ale honetan. Txalaparta, bertsolaritza, panderoa eta euskara alfabetatze eta sarkontze mailako ikastaroak daude hauen artean. Hala, hauetako ikastaroren batean parte hartu nahi izanez gero, Kultur Etxera jo besterik ez duzue edota 943.16.03.38 telefono zenbakira hots egin.

EHNA egiteko aukera

Honezkero jakingo duzue, Zaldibiako Udalak Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) egiten duen agiria eskuratzeko paperak egiteari ekin zion iazko sanjoanetan, Udalbiltzaren bitartez. Dagoeneko ailegatu dira lehen agiriak, baina hala eta guztiz ere, bera egin gabe duzuen herritarrei EHNA egiteko aukera zabalik duzuela gogorarazi nahi dizue Udalak herritarrei. EHNA egiteko 3 argazki, 12 euro (2.000 pezeta) Kutxan edo Laboralean sartzea eta errolda-agiria aurkeztea nahikoa da. Informazio gehiago udaletxean.

Zubi-buru elkartearen urteko batzarra

Zubi-buru elkarteak (beheko soziedadeak) urteko Batzar Orokorra ospatuko du etzi igandea, hilak 27. Arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera batzarrari elkartearen bertan eta urteko balantzearen berri emango dute juntan lanean aritu diren kideek. Beraz, leerro hauen bitartez, batzarrera azaltzeko deia luzatu nahi dizue bazkide guztiei.

Bi kontu Gazte Taldetik

Bat, Zaldibiako Gazte Taldeak (ZGT) logotipo lehiaketa antolatu du. Hau da, hemendik aurrera ikur gisa erabiliko duen logoa izateko antolatu du txapelketa hau. Horretarako trebezia duen orok parte har dezake lehiaketa honetan. Lanak aurkezteko epea martxoaren lehenean amaituko da. Irabazle modura aukeratzaren den ikurraren egileak sagardotegi batean bi lagunentzako afaria irabaziko du.

Bestetik, eta inauteriak gertu daudela eta, afaria antolatu du otsailaren 8rako, Zubi-buru elkartearen. Afarirako

txartelak Joxepanen daude salgai, eta hauek eskuratzeko azken eguna otsailaren 4a izango da. Honez gain, esan, afalostean Tolosara joateko asmoa dagoela, eta horretarako autobusa jarri asmo dute, baina horretarako jendeak ahal bezain pronto izena eman beharko du Joxepanen jarrita dagoen zerrendan. A!, afarira joateko ezinbestekoa da moxorrotzea.

Kroniston oharra

Lerro hauen bidez zuengana, irakurle eta herritarrengana, zuzendu nahi gara. Goierritarako Zaldibiako kronikan zer edo zer kaleratu nahi izanez gero guregana jotzea besterik ez duzuela gogorarazi nahi dizuegu, inongo erreparorik gabe. Elkar ikusteko aukera handiegirik ez dugunez, hori egia da, Kultur Etxeko Lurdesengana jo dezakezue zuen elkarte edo inguruan duzuen kontu horren berri ematera, eta gero moldatuko gara. Guk eskertuko dugu, baita zuek ere!

*Inaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*

Gipuzkoako txapeldun

Xepeño Agirre, Antonio Agirre, Martxeliño Agirre, Imanol Agirre, Jexux Mari Intxausti eta Jokin Izagirrek osatutako taldea lehenengo geratu da Gipuzkoako taldekako bola txapelketako bi saioen ondoren. Urtarrilaren 13an, Mutiloan, 3. geratu ziren 268 birla jota. Urtarrilaren 20ko 2. saioan, Añorgan, irabazi egin zuten (254 birla). Bi sailkapenak kontutan hartuta, segurarrak geratu ziren txapeldun (522), 2. La Salle A (517) eta 3. Ategorrieta (513). Guztira 11 taldek parte hartu zuten. Añorgako eguneko saioa, Jokin Izagirrek eskuratu zuen 46 birlarekin. 5. aldia da taldekakoa irabazten dutena.

Labur-labur

- **Santa Ageda eskeak.** Otsailaren 4an, eskolako haurrak arratsaldean eta Elorri Kultur Elkartekoak zein Kabalgataren ingurukoak ilun-



Atzeko
portalean
txukuntze
lanetan
aritu dira.

Berrikuntzak eta konponketak kaskoan

Eusko Jaurlaritzako kultura sailetik lortutako subentzio batzuei esker, atzeko portalearen barruko nahiz kanpoko harriak bistaratu eta txukundu dituzte. Ondoren, eliza inguruko eta San Joan sua egiten den guneko zorua berrituko da. Zerain aldeko zerkaldean, berriz, hondoratzen ari den guneari eustorma egingo diote.

Industria lurfð saldu áu Uadlak

Udalak, berak sortutako Aizkoeta S.A. enpresaren bitartez, Aizkoeta aldeko industri lurra saldu berri dio Iturrioz eraikuntzak S.A. enpresari. Kendu enpresaren atzean dagoen eremuak 19.000 m² ditu eta 450 m²-ko partzela minimoak eginez, 21 pabiloi egiteko aukera dago. Segurako lehen industrialde honek, Goardigain industrialdetik izango du sarrera. Enpresa erostunak 2002 amaiera baino lehen hasi beharko ditu urbanizazio lanak eta 2003 bukatzeko amaitu. Urbanizazio fasearen ondoren pabiloiak eraikiko dira. Udala, beste eremu



*Saldu berri duen industri lurra diru sarrera handia ekarri dio
eta ekarriko dio Udalari.*

batzuk aztertzen ari da indus-
trigune bihurtzeko.

- tzean kantu eskera aterako dira.
- Herri eskolak urtero antolatuta ohi duen **kultur astea**, otsailaren 12tik 17ra izango da.
 - Atsedeen jubilatuen elkarteak antolatzen dun **punttu, tute eta mus txapelketa** otsailaren hasiko da.
 - Aurtengo **Iparra-Hegoa** astea, apirilaren 8tik 14ra burutuko da Seguran.

- **Eskultura lanak ikusgai Elorripen.** Nekane Munduate ataundarraren 8 lan. Gaia: 'Euskararen 3 testuinguruak'.
- **Obrak eta txukunketak posta etxean.** Atzeko atea baliogabetuta, arboladi aldetik izango du sarrera. Barnealdean, baserritarren buzoiak berrituta, posta bulegoa eta udalarentzat gela libre bat geratuko dira. Hirurak pintatu egingo dira eta argiteria berritu.

- **Kirol eskolarra.** Mendi irteera Laartera (810 m). Otsailaren 3an, goizeko 8,30etan plazatik irtenda.
- **Pilota.** Gipuzkoako infantilen txapelketan, Javier Rodriguez, Endika Mantecon eta Mikel Biain alde batetik eta Ioritz Arizkorreta, Markel Fernandez eta Eneko Montes bestetik ari dira eskualdekako fasean.

Joseba Telleria



Errejonlak lider

Bigarren itzuliko lehen partiduen ondoren, lehenengo daude berriro ere Iñaki Albisuren mutilak.

- **Asteburuko emaitzak: Errejionalak:** Segura 3-1 Orioko. **Jubenilak:** Segura 2-4 Intxurre. **Infantilak:** Aizkorri 6- 1 Ostadar.
- **Asteburuan etxean:** Aizkorri-Lehengokoak (kadeteak), zapatuan, 11:00etan.

Kirolean osasuntsu

'Karratu' korrika, Iraeta eta Aierbe eskupilotan, errugbi taldea, futbol taldea... urte berriari hasiera ezin hobea eman diote denek ere.

Aurreko alean aipatu gabe geratu bazen ere, urte amaierako San Silbestre proba herrikoian **J.J.Cuadrado** ordiziarra izan zen nagusi. 350 partehartzaile inguru izan zituen probak eta 'Karratu'k forma onean zegoela erakutsiz eskuratu zuen garaipena. Eta gorputzaldi onaren erakusgarri Gipuzkoako kros txapelketan lortutako hirugarren postua. Oñatin urtarrilaren 13an jokatutako proban lortu zuen postu bikain hori eta orain beste hainbeste egiten saiatuko da datorren hilean jokatuko den Euskal Herriko txapelketan.

Txapagain pilota taldean ere pozez gainezka dabilta. Eskupilotari dagokio txanda. Izan ere, Iraeta eta Josu Aierbe bikain aritu ziren hirugarren mailako Gipuzkoako txapelketa osoan zehar eta finala irabazi ondoren mailaz igotzea lortu dute.

Nazional mailan ere goiko postuetan dabil **errugbi taldea**. Lehen itzulia 3. postuan amaitu zuen eta bigarrena hasi besterik egin ez denean itxaropentsu dabilta errugbi taldekoak. Santanderren aurka garaipena lortu ondoren Bilbon zuten zita asteburu honetan eta hutsik egin gabe garaipenarekin itzuli ziren. Durango eta Santander aurretik dituzte baina puntu batera bakarrik. Kontuan hartuta lehen biek beraien artean jokatutako behar dutela eta Ordiziak bizkaitarrak etxean hartuko dituztela, lehen bi postuetan sartzeko aukera oso onak dituzte. Sailkapeneko postu horiek igoera fasea jokatze

ko aukera ematen dute. 100-150 pertsona inguru hurbiltzen da normalean Trebujanora eta aipatu liderraren aurkako neurketan 250 ere bazirela. Iaz ukrainiarrak ekarri zituzten taldeko maila hobetu asmoz, baina aurrean ez daude. Kanpotik etorri da beste bat, ordea, 26 urteko Markos Amaya argentinarra eta maila ona duela erakutsi du orain arte.

Errugbi taldekoak goialdean dabilta baina baita **saski-baloikoak** ere. Une honetan igoera faseko lehen neurketak hasiak dira jokatzen eta orain arteko maila erakusten jarraitzen badute bereak eta bi ikusi beharko dituzte aurkariek.

Futbol taldekoak ere maila berria estreinatu dute aurrengo denboraldian. Orain bi urte errejional mailako bigarren mailan zeuden, igoera lortuta lehen mailan aritu zen iaz eta denborarik galdu gabe preferrente mailako jautzia eman zuen. Lehen itzulia orain gutxi amaitu berri da eta emai-



Komiki lehiaketa

Abenduan ikusgarri izan ziren Barrenan ikastetxeen artean antolatutako I. Komiki Lehiaketako lanak. Euskara Aholku Batzordeak antolatuta 30 lan inguru aurkeztu ziren eta jarraian datorren argazkian ikus daitezke saria jaso ondoren sarituak. A maila eta zuri-beltzean saria Asier Muñagorrirentzat, B maila eta zuri-beltzean Bingen Gonzalezentzat, B maila eta koloretan Oihana Arratibelentzat eta D maila eta zuri-beltzean Lander Muñagorrirentzat. Argazkian ezkerretik eskuinera Lander, Asier, Bingen eta Oihana.

tza aldetiko hasiera kaskar samarra izan bazuen ere, lanean berdin eta ondo jarraituz emaitza onak iristen hasi ziren eta orain jaitziera postuetatik irtenda dabil, joaten den leku guztietan maila ona erakutsiz. 3 urte hauetan taldeko oinarria mantenduz eta ia kanpoko jenderik gabe lortu dute hau guztia. Jokalari asko

inguratzea ere lortu zuten zuzendaritzakoek eta honen zioz goren mailako beste talde bat ere sortu zuten. Errejional mailako bigarren mailan hasi da eta momentuz igoera faseko bi neurketa jokatuta ondoren biak irabazi ditu.

Aitor Calvillo

AEK Txotx Hernanin

AEK-k antolatuta sagardo eguna egingo da datorren otsailaren 2an, larunbata, Hernanin. Bertan arratsaldean makailu lehiaketa egiteaz gain hainbat afari izango dira Astigarraga eta Hernaniko sagardotegitan. Goiztiri AEK-k autobusa jarriko du (7 euro) eta afariaren kostua 17 eurokoa izango da. Autobusa arratsaldeko 6rak inguruan aterako da eta bai afarirako eta baita autobuserako txartelak eskuratzeko 649-011262 telefono zenbakira deitu.

Santa eskean

Aspaldiko ohiturak berreskuratu nahian iaz Santa Ageda bezperan kantuan atera ziren hainbat herritar. Aurtengoan ere honekin jarraitzeko asmoa dute Irriki Kultur Elkartekoek eta hau dela eta gonbitea luzatu diete kantuan atera nahi duten guztiei. Urtarrilaren 25

eta otsailaren 1ean izango dira entseguak, arratsaldeko 7,30etatik aurrera Barrena Kultur Etxean. Santa Agedako kopia zaharrak ikasi ondoren otsailaren 4an aterako dira denak arratsaldeko 6,30etatik aurrera herriko kaleetan barna. Arana kalean hasi, Garagartza Plazaraino hurbildu, hortik Urdaneta aldera eta ondoren Santa Maria kaletik Fray Andresera eta Enparantza Nagusian amaituko da ekitaldia.

Goierri telebista

Idea berritzaileen lehiaketan aurkeztutako proiektuen artean lehen saria eskuratu ondoren, abian jarrita da jada Goierri Telebista. Lanak piskanaka-piskanaka aurrera doaz eta egoitza Ordiziako industrialdean daukate. Dena euskaraz izango da eta teknologia digitalarekin. izango duzue aurrerago honi buruzko berri zabalagoa.



laz baino gabiriar bat gutxiago erroldan

Azken urte honetan Gabiria-ko populazioak ez du gora-behera nabarmenik jasan. Beheranzko joera badu ere egonkor samar mantentzen da biztanleri kopurua. Udaltxetik pasa dizkiguten datuen arabera iazko urtarilaren letik aurtengora izandako mugimendu guztien ondoren, gabiriar bat gutxiago zenbatzen du erroldak; 423 dira une honetan herrian bizilekua dutenak, iazko 424ren aldean. Horietatik 230 gizonezkoak dira eta emakumezkoak 193.

Beste behin, hamarkada honetan ohiko bihurtzen ari denez, migrazio mugimenduek eragin dute biztanleri galeran. 90eko hamarkadan denera herrira etorritakoak alde egindakoak baino gehia-

go izan baziren, 2000. urtetik honantz alderantzizkoa gertatu da. Iaz, adibidez, 25 herritar joan ziren (17 gizonezko eta 8 emakumezko), gabiriaratu, oster, 22 (hamaikana).

Joera begetatiboari dago-kionez, jaiotza-heriotza erlazioa, hain zuzen, balantze positiboarekin jarraitzen du Gabiriak. Hiru haur jaio ziren (bi neskato eta mutiko bat), hil berriz bakarra. Laburtze aldera, 2001. urteak 25 alta-jaiotakoak eta etorritakoak batera- utzi ditu, bajak 26.

Adin-mailaka atondu ditugu ondoko koadroan gaur egungo biztanleak.

Herriko biztanleen jatorria aztertuz gero, argi ikus

Adin tartea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Denera
0 - 10	25	19	44
11-18	25	13	38
19-40	63	57	120
41-50	37	23	60
51-64	33	32	65
65-75	25	22	47
75-84	15	17	32
>85	7	10	17
GUZTIRA	230	193	423

Zozkeraka kokatuta, hona gabiriarren bizilekuak:

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Denera
Gabiria gunea	69	48	117
Aztiria	22	22	44
Alegi	21	21	42
Madariaga	17	7	24
Orbeldegi	25	22	47
Santa Luzia	4	5	9
Ugarana Bekoa	21	13	34
Ugarana Goikoa	18	16	34
Zuazola	33	39	72

daiteke kanpotik etorritakoak herrian bertan jaiotakoekin parean oso gutxi direla. 1997ko azterketa batetik ateratakoak dira honako proportzio hauek (%-tan). 433 biztanle ziren orduan:

Gabirian jaiotakoak: 64,4
Goierriin: 21,3
Gipuzkoan: 9,9
EAEn: 2,1
Besterik: 2,3

Aimar Maiz



Santa Agedari abesteko ohiturari jarraituz

Urtarrilaren amaieran aurkitzen gara ondorioz otsailari hasera emateko ezer gutxi gertatzen zaigu, aitzitik aurtengoan ere iristear ditugu San Blas eta Santa Ageda Santuen egunak. Ondorioz aipatu Santuekin oroitzu hainbat ekintza burutzen dira gure herrian ere.

San Blas egunean ogi eta jakien bedeinkapena egiten da herriko parrokiari, ondoren bedeinkaturiko jakiak gaitz guztiei aurka egiteko asmoz

etxera eramane eta sendikoe-kin banatuz jaten dira.

Santa Agedarekin oroitzu bere oroimenez idatziriko koplak abesteko ohitura dago bezperan, herriko kaleetan zehar abesten direlarik.

Iazko urtean berreskuratu zen ohiturari jarraituz aurtengoan ere Santa Ageda bezperan abesten ateratzeko ohiturarekin jarraitzeko asmoa dago. Aipatu asmoa aurrera eramateko herritar talde bat el-

kartu eta urtarilaren 15etik aurrera abestiak prestatzeko asmoz entsaioetan ari da. Entsaioak astearte eta ostiraletan gaueko 9,30etatik aurrera kultur aretoan burutzen dira. Santa Ageda bezpera, otsailak 4, aurtengoan astelehena dugu. Ondorioz aipatu egunean arratsaldean zehar herriko kaleetan Santa Ageda bezperako koplez giroa alaituko da.

Aitziber Murua.

Ur kontagailuen irakurketa

Gipuzkoako Ur Kontsoltzioak Ormaiztegiko abonatuak jakinarazi nahi die 2001. urteko laugarren hiruhilabeteko ur-kontagailuen irakurketarekin hil honen 14an hasi zirela. Etxetik kanpo izanez gero irakurketa erraztea eskertuko lukete, horretarako irakurleak etxeko atean utziriko orria beteaz eta ondoren 902 30 22 22 bezeroaren telefono zenbakira deituz.



Hiru lazkaotar Gipuzkoako pala txapeldun

Jon Soraluze, Azeari Sumakila Andonegi eta Arnaz txapeldun suertatu dira Gipuzkoako bikotekako pala txapelketan.

Abenduan jokatu zuten finala Oiartzungo Madalensero pilotalekuan eta hiru lazkaotarrak, maila ezberdinetan, garaile suertatu ziren. Soraluzek, gazteenak 17 urte ditu,

eta Ordiziako bikote lagun batekin, lehen postua eskuratu zuen Oiartzunen gazteen mailan.

Lehen mailako seniorretan berriz, Andonegi ongi ibili zen finalean, eta azkenean, hau ere, txapeldun suertatu zen Olaberriko Garikoitz Arrietarekin batera.

Dinoisio Amundaraini omenaldia bertso paperetan

Antzarren XII. bertso-paper bilteta antolatu du Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak. 10 urtez gorako edoizen "antzarek" har dezake parte baina, aurtengoan helduei ere anima daitezela eskatzen dute antolatzaileek. Taldeka nahiz banaka idatziz daitezke bertsoak. Gerriko liburudendan utzi behar dira otsailaren 15a baino lehen. Jasotako lanen artean, txukun idatzirik daudenak, liburuxka batean argitaratuko dira.

Gaiei dagokienez, berriz, hiru jarri dituzte aukeran: 14 urtekoak haurrak ala helduak ote diren, denbora libreza zertan pasa dezakegun edo Antoine D'Abbadie saria jaso berri duen Dionisio Amundarain.

Eta hirugarren txapelduna: Arnaz. Egun Andoainen bizi bada ere, lazkaotarra da jaiotzez eta honek ere, bere bikotearekin batera, lehen postua lortu zuen seniorretako bigarren mailan.

Emaizta pozgarriak zalan-tzarik gabe: hiru lazkaotarrek lehen postua lortu dute Gipuzkoako bikotekako pala txapelketan. Zaila da lehen postua eskuratzeko, eta are zailagoa hiru maila ezberdinetan lazkaotarrak garaile izatea; baina oraingoan lortu dute eta harro egotekoa da zalantzarik gabe. Zorionak beraz, hiruroi!

Orain Soraluze eta Andonegi Euskadiko pala txapelketan dabilta lehian, Arnazek ordea, Gipuzkoako txapelketarekin gelditu behar du bere mailan Euskadiko txapelketarik ez dagoelako. Hala

ere, pozik egotekoa da. Orain Soraluze eta Andonegi animo eta indarrak bidali behar-ko dizkiegu Euskadiko txapelketan ere maila ona lor dezaten.

Maizpideko ikasleen musika kontzertua

Urtarrilaren 29an, 21:00etan, kontzertua izango da Maizpide euskaltegian. Kontzertuak ordea, badu berezitasun bat: musikariak Maizpideko ikasleak izango dira.

Haurrentzako zinema

Haurrentzako zine emanaldiak hasi dira berriro Lazkao Kultur Etxean. Ostiral eta larunbatetan, 17:00etan, haur eta gaztetxoenei zuzendutako pelikulak dohainik ikusteko aukera izango da.

Oihana Sarasola

Bola txapelketa

Urtarrilaren 13an jokatu zen Gipuzkoako txapelketako taldekako lehenengo saioa herriko bolatokia. Bola gehien bota zituztenak honako hauek izan ziren: Igo Miguel Arroyo, 49 bolarekin, lasartearra dugu berau. Hurrengo hamarrekin 47na bota zituzten eta despenpatea egin ondoren, hiru lehenengoak Xabier Laz-

kano donostiarra, Antonio Agirre segurarra eta Miguel Burugain hernaniarra izan ziren.

Tere Arruabarrenaren erakusketa

Abenduan zehar Donostian izan bazuen bere erakusketa, oraingoan Beasaingo Usurbe

Antzokiko erakusketa aretoan daude ikusgai herri artista honen artelanak. Urtarrilaren 18tik 27ra bitartean egongo da erakusketa, lan egunetan 19:00etatik 21:00etara bitartean eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara goizean eta 19:00etatik 21:00etara arratsaldean.

Santa Ageda eskea

Dagoeneko hasita ditu entsaiuak Santa Ageda bezperan baserriz baserri kantari ibiliko den taldeak.

Errosarioa

Lierniko ermitaren inguruan zilarrezko errosarioa aurkitu da. Bere jabea serora etxera hurbildu dadila jasotzera.

San Blas eguna

Ohitura den bezala otsailaren 3an egingo da 12:30eko elizkizunean, kandela eta jana-rien bedeinkapena. Hau bedeinkatutakoan, elkarrekin banatuko dira mahaiaren inguruan apaiz etxean.

Iñaki Ugald

San Blas jaietan kirola ere protagonista



Argazkia:
Nagore
Nograro.

XXII. Herri krosa, urtarrilaren 27an

San Blas jaien lehenengo asteburuan, herri krosa izango da, goizeko 11etan hasita, Idiazabal Kirol Elkartearen eskutik. XXII. ekitaldia izango da aurtengoa.

Goizeko 11etan hasiko da lasterketa, txikienekin. Benjaminek, 500 metro burutu beharko dituzte. Goierri Behea bailara-koek bakarrik parte hartu ahal izango dute maila honetan. Alebinek, 1.000 m. neskek eta 1.100 m. mutilek egin beharko dituzte; infantilek, neskek 1.100 m. eta mutilek 1.800 m.

Eskuz binakako txapelketa

Titin-Zezeaga Olaizola II-Errastiren aurka

Otsailaren 2an, Kandelari egunean, Profesionalen arteko eskuz binakako txapelketako pilota partida jokatu da Igarondo pilotalekuan. Titin eta Zezeaga, Olaizola II eta Errastiren aurka arituko dira. Arratsaldeko 5etan hasiko partida.

Urrezko Aizkorako finalerdia

Otsailaren 3an, San Blas egunean, binakako Urrezko Aizkora sariko finalerdia jokatu da Igarondo pilotalekuan, arratsaldeko 7etan. Lehiatuko direnak, Larretxea eta Etxeberria, eta Arrospide eta Arria V. izango dira.

Goitibehera txapelketa

Duela urte batzuetako ohitura berreskuratuz, aurtengo San Blas jaietako berrikuntzetariko bat goitibehera txapelketa da. Gazte Asanbladak antolatu du txapelketa. Hilerrri paretik elizara arteko bidean, goitik behera, jaitsiko dira parte hartzaileak.

Eguerdiko 12etan, gainerako guztiek parte hartu ahal izango dute. Kadete neskek, 2 km. eta mutilek 4 km. egin beharko dituzte korrika. Helduek, emakumezkoek 6 km. eta gizonezkoek 10 km.

Lasterketa bukatzen duten haur guztiek, domina jasoko dute. Kadeteak eta helduak, diplomaz gain, hainbat opari-zenzketan sartuko dira. Gurutze Gorriak bere laguntza eta zerbitzuak eskainiko ditu.



Pottora
KAFETEGIA

● **Plintxo hotz eta beroak**
● **Ogitartekoak**

Legazpi kalea, 3 **ORDIZIA**

GABINETE PSIKOLOGIKOA



ARPE

Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✕ Depresioak
- ✕ Harremanetarako arazoak
- ✕ Beldurrak
- ✕ Antsiak
- ✕ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Otsailaren 9an irekiko dugu

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76 ABALTZISKETA



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 - 659 644 221 (Xabi, Nerea)
Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**



**LAN BERTIKALAK
ANDAMIORIK GABE**

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

Tximistorratzak

...



**Multi
ESKAINTZAK**

MULTIOPTICAS

Ba al dakizu zer dagoen
begirada eder baten atzean?...
Eta aurrean?

**BONARDI
AIREKO
ARMAZOI
BERRIAK**

**49
8.153**

€
pta.

*Eskaintza baliozkoa 2002/02/28 arte

MULTIOPTICAS



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRENTERIA
Tel. 943 51 78 11

ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ

Urtarrilak 31, 'La ciudad está tranquila', 21:00etan, Usurbe Antzokian.



LEGORRETA

Urtarrilak 31, 'Son de mar', Herri Zinemán, 20:30ean.

ORDIZIA

'Harry Potter y la piedra filosofal',
Urtarrilak 25, ostirala: 22:15
Urtarrilak 26, larunbata:
19:30 - 22:15
Urtarrilak 27, igandea:
16:45 - 19:30 - 22:15
Urtarrilak 28, astelehena:
19:30.

'La ciudad esta tranquila'

Robert Guediguian
(Frantzia, 2000)

Zenbait pertsonaren istorioak nahasten dira Guediguianen "hiri lasai" honetan, Marsellan noski, bere orain arteko pelikula guztien kopapena. Pertsonaia hauen artean: Michele, arrain lonjako langilea, bere alaba drogatik ateraraztea beste helbururik ez duen emakumea; Paul, greban dauden portuko lankideei traizioa egin ondoren taxi gidari bihurtua; Viviane, senarraren joera politiko eskuindarra gehiago jasaten ez duen musika irakaslea...

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Urtarrilak 26-27: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Otsailak 2-3: Jauregi
(Andra Mari kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.

antzerkia

BEASAIN:

Urtarrilak 25, 'Picosis Gonsales' taldearen 'Concierto Desconcierto' lana, Antzerki Garaia programaren barruan, 22:15ean, Usurbe antzokian. (Gaztelera).



pailazoak

IDIAZABAL:

Otsailak 1, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Aupa Kintxo' ikuskizuna, Zelaako kiroldegian, 17:00etan.

bestelakoak

BEASAIN:

Urtarrilak 30, Arrate Leunda ipuin kontalaria, Kultur Etxeko Bibliotekan, 18:00etan eta 18:30ean.

BEASAIN:

Otsailak 6, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, Kultur Etxeko Bibliotekan, 18:00etan eta 18:30ean.

musika

BEASAIN:

Otsailak 7, Oliver Twist musikala, Usurbe antzokian, 21:00etan. Sarrera: 9 euro.

IDIAZABAL:

Urtarrilak 26, Eztanda, plazan, 23:30ean.

Otsailak 1, Sakatrik, plazan, 24:00etan.

Otsailak 2, Drindots, plazan, 23:30ean.

Otsailak 3, Akelarre, plazan, 24:00etan.

Otsailak 4, Joselu Anaiak, plazan, 19:30ean.

bertsoak

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak, plazan, 12:00etan.



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



Lues rothers



BEASAIN

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 **ORDIZIA**



Mendiko argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkartek, Udalaren babesarekin, III. Mendiko Argazki Lehiaketa Igartza Saria jarri dute martxan dagoeneko. Lehiaketa honetan, lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte eta gaia mendia izango da.

Argazkiak gehienez ere 30x40 zm.ko kartoiez sendotuak aurkeztu behar dira. Teknika eta aurkezteko moduari dagokionez askatasun osoa dago. Otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

erakusketak

BEASAIN:

Urtarrilaren 27ra arte, Tere Arruabarrenaren pintura erakusketa, Usurbe antzokian.

Otsailaren 1etik aurrera, Ars Lignae erakusketa, Igartza jauregian.

Otsailaren 1era arte, X. Aterpe lehiaketara aurkeztutako lanak, Aterpe tabernan.

Urtarrilan, Beloki Peñak antolaturiko lehiaketako txirridulari argazkiak, Zinema tabernan.

Ars Lignea:

Zurezko elizak Euskal Herrian

Otsailaren 1ean Beasaingo Igartza jauregian Ars Lignea: Zurezko elizak Euskal Herrian erakusketa inauguratuko da. Aranzadi Zientzia Elkartea, eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako diputazioen laguntzaz osatutako erakusketa da. Erakusketa-aren berri ondoko lerrootan duzue.

XVI. mendean Euskal herriko eliza zahar ugari zaharberritu zituzten eliztarrek. Oso jainkozaletak ziren eta nabegazioak, merkataritzak eta burdin-industriak herriari ekarri zion aberastasuna erabili zuten elizok zaharberritzeko.

Eliza berrietan gehienbat harrizko ganga landuak eraiki zituzten, ganga horiek egitea oso garestia zen ordea eta nekazaritza gunetako ermitak konturatu ziren ezin zituztela ganga horiek ordaindu. Horrela ba, modan zeuden tenplu ikusgarriak eraiki ahal izateko haritzez egindako teilatu horien bidez garai hartako

ganga ikusgarrienetako arku eta izarren antzekoak egin ohi zituzten.

Herberehetara egindako bidaietan arrantzaleek ikusitakoa oinarritzat hartuz egin zituzten teilatu mota horiek; Europako hegoaldean ordea, harrigarria eta apartekoa zen teilatu mota hori. Gainera teilatuok egin zituzten arrantzale eta arotzek berezko izaera eman zieten teilatuei eta teilatuok beraz ez zuten aurretik egindakoekin inolako zerikusirik.

Iraganean, Bizkaiko elizen herena baino gehiagok zurez landutako arotzeria zuten, mendeak igaro ahala ordea, haietariko asko eta asko desagertu egin dira. Oraindik zutik dauden artean Ibarrangeluko San Andres eliza aipa dezakegu. Nerbio ikusgarriak eta pintatutako arku-multzo ikusgarriak ditu San Andres elizak, iraulitako galeoi handi baten ur gaineko kroskoa balitz bezala airean zintzilikatutako arku-multzoa.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

© 943 02 73 56 Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5 BEASAIN

AMEB



Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka, 9

LAZKAO

IKASTE

AKADEMIA

Goierriko
Akademia
integrala

Interneten: Kontsultatu irakasleari
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
<http://usuarios.tripod.es/ikastek>

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- * Goi eta maila guztiak
- * Lehen Hezkuntza
- * DBH, DBHO, Moduloak
- * Zikloak

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- * Marrazketa
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Ohiturak, metodoak
- * Atentzioa
- * Emozioen kontrola

UNIBERTSITATE MAILA

- * Enpresaritza
- * Kontabilitatea, kalkulua
- * Fakturazioa, estatistika
- * Matematika (finantzieroa...)

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Idiazabalen pisua salgai. 91 m²koa. 609349630.
- ➔ Ordizian etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainu gela, sukaldea jarrita eta egongela argitsua. 669400513.
- ➔ Ataunen txalet elkarri atxikia salgai. 3 soilairu. Azpian garajea. 25 m²ko terraza eta 30 m²ko lorategia. 606217256.
- ➔ Baserria salgai Zegaman. Terreno onekin. 943510851.
- ➔ Beasainen 2 logelako etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta alaia. 943027138. 20:00etatik aurrera deitu.
- ➔ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

errentan

- ➔ Ordizian, plazaren ondoan, etxea alokatzen da. 943882928.
- ➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 948539381.

Garajeak

salgai

- ➔ Zaldibian Ostatuburu etxean garajea salgai, entreplantarekin. 943881978.
- ➔ Beasainen garajea salgai, herri erdian. 943027947. Iluntzetan deitu.

errentan

- ➔ Lokal edo garaje itxian alokairuan hartuko genuke Beasainen. 943028881. Jon.

Negozioak

errentan

- ➔ Ileapaindegia alokatzen da, ezin delako atenditu. 630818941.

Animaliak

salgai

- ➔ Ponny arrazako 2 zaldiko salgai. 943801811.
- ➔ Mastin pirenaiko eta pastor aleman gurasodun txakurkumeak salgai. Oso merke! Iluntzetan deitu. 605708502.

Bestelakoak

salgai

- ➔ Su egur iharra salgai. 943723504.0
- ➔ 'Jakintza bideak' entziklopedia salgai. 5 liburu. Euskaraz. Erabili gabeak. 943882467 - 626610384.
- ➔ Egongelako egurrezko altzaria salgai. 211 cm-ko altuera, zabalera 172 cm-koa eta sakonera 40 cm-koa. Egoera oso onean. 678846282.
- ➔ Egongelako altzariak salgai: 1,35ko sofa-oheta eta beste bi sofa, eta mahaia. 943885320.
- ➔ Andregaiaren soinekoa salgai. 1999/2001 denboraldikoa. 42-44 neurria. Oso ondo dago. 943163013.
- ➔ Sekadora besoekin eta tintarentzako baporea salgai. 50.000 pezetan. 943883180.
- ➔ Pentium 3 ordenadorea salgai. 1.000 Mh. 40 Gb. Windows Millennium eta Office 2000. 80.000 pezetan. 943187706.
- ➔ Berogailu kaldera elektrikoa salgai. Zeus-Rab9 markakoa. Ordu programatzailer eta 9.000 watio arteko potentzia hautagailuekin. Enpresa, garaje eta antzeko lokaletarako aproposa. Bere erdi baliolan salgai. Jose Ramon. 943652878.
- ➔ Zeus markako errepideko bizikleta salgai. Kanbioak manillarrean ditu. Ez erabiltzeagatik oso egoera onean. Bizikletan ibiltzeko zapatilak emango nituzke. 943800336 - 605720890. Arratsalde edo iluntzetan deitu.
- ➔ Logelako egurrezko altzariak salgai: 2 ohe (105 m.), 5 ateko armarioa (2,30 m.) 5 kajoiko komoda, ispilua, bi gau mahaitxo 3 kajoirekin. Gutxi erabilia eta egoera onean. 943801823 - 679368886.
- ➔ Karabanarentzako estabilizadoreak salgai. 75 euro. 943725052.
- ➔ 3 urteko Rossignol eski pareak salgai. Fijazioak estrenatzeko. 670428820.
- ➔ Eskiak salgai. 2 metrokoak. Volki markakoak. Egoera onean. 15.000 pezeta edo 90 euro. 943886709 - 6463393334.
- ➔ Salgai 2000. urteko VW Bora TDI baten serieko lllantak (6 aspa, 16"x6,5) bere kubierteekin /205x55x16). Egoera onean. 330 euro. 943883164. Eguerdia eta gauetan deitu.

- ➔ Sutarako egurra saltzen da. 2 metrora moztua eta 5 pezetan kilo. Xabier. 943885006.

- ➔ K6-II 450 ordenadorea salgai; 128 Mb ram, 15" monitorea; Riva Tnt2 32 MbAGP; Samsung regirabadora, 8 x 4 x32x; Windows 98E (edo XP edo Linux Suse 7.0). 80.000 pezeta. 619856033

- ➔ USB NGS 300/600 skanerra salgai. 10.000 pezetan. 619856033.

- ➔ Roland BM-100 bazuarentzat 100 w bozgorailua salgai (60.000 pezeta). Oso egoera onean. 943880343.

- ➔ Hifi Philips minikatea salgai, 50 + 50 W. 3 Cd, Bass Boost, Surround. 20.000 pezeta. 619856033.

erosi

- ➔ Bigarren eskuko motokultorea erosiko nuke. 943883410.

- ➔ Euskarazko liburuak erosten ditut, 1950 aurrekoak. Gai guztietakoak interesatzen zaizkit eta ondo ordaintzen ditut. Gotzon. 649699022.

Kubako bidaietan berezitasuna

bilbo-Habana-Bilbo
Urtarrilaren 1etik 21era
561 euro

Elosgi, 17 **LAZKAO**
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

Tel. eta Faxa: 943 886 558 Poltsikoko telefonoa: 616 698 288

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.
Jose Agustin Jauregi

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 **LAZKAO**
e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

Ibilgailuak

salgai

➔ Renault-5 Oasis autoa salgai. Egoera oso onean. 200.000 pezeta. 19:00etatik aurrera deitu. 620256197.

➔ Scooter motoa salgai. Aprilia SR50DI. Zozketan tokatua, berri-berria. 656415761.

➔ Seat Malaga 1.300 salgai. SS-AF. 72.000 km. ITV pasatuta eta aseguru abuzturarte. Oso ekonomikoa. 943887163.

➔ Peugeot 405 GR, 1.9, salgai. NA-X. Itxiera zentralizatua, kristal-jasogailu elektrikoak, lagundutako direkzioa... Oso egoera onean, beti garajejan egona. 200.000 pezeta. 655486022.

➔ Citroen ZX 16 AV salgai. 1995. urtekoa. Ondo zaindua, garajejan egona. 943084204. Gauetan deitu.

➔ Volkswagen Polo 1.9. diesela salgai. SS-AX. 5 urte. Oso egoera onean. 650213259.

➔ Renault 4 F6 salgai. SS-AB. 75.000 pezeta. 943886506. Gauetz deitu.

➔ Nissan Capitone furgoneta salgai. SS-W matrikuladuna. 150.000 pezeta. 943161476

➔ Ford Scort autoa salgai. 4 urtekoa. Oso egoera onean. Extra asko (ABS frenuak, airbag, kristal-jasogailu elektrikoak, itxiera zentralizatua, leiari tinta-tuak, musika ekipoa eta aleroi bikoitza). 657799068.

➔ Land Rover luzea salgai. SS-U. 943800174.

➔ Motorhispania RX Racin 50 zm3 salgai. Rodajea ondo egina. 3.000 km. Ondo zaindua eta berri-berria. Aseguru ekainera arte egina dauka. 943180360. Jokin.

Lana

eskaerak

➔ Asteburuetarako kamarrera euskalduna behar da. Esperientzia eta autoa izanez gero, hobe. 943880044.

➔ Neska gazte euskalduna behar da 9 urteko haurra, goizetan, eskolara eraman eta etxera ekartzeko. 943028506.

➔ Sukaldaria behar da Lazkaon. Interesatuak deitu: 943162523.

➔ Ataunen neska euskalduna behar da tabernan lan egiteko, arratsalde. 943180019.

➔ Klinika laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikulumak bidali: Eulen. Esteban Lasa kalea, 2. Beasain.

➔ Neska edo emakume bat behar da Ordizian 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943160292. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Emakume euskalduna behar da adineko emakume bat zaintzeko. 943161239.

➔ Gaintzan zerbitzari lanerako neska euskalduna behar da. 943889848.

➔ Neska edo emakume bat behar da Ordizian, etxeko lanak egiteko. Kontratua eta Gizarte Segurantzza. 943888744.

eskaintzak

➔ Mutil bat prest dago igeltseritza lanerako. Egun erdia. 678923512.

Harremanak

➔ 70 urte inguruko gizon alargun euskaldunak, 60 bat urte inguruko emakume euskaldun baten adiskidetasun jatorria nahiko luke. Bingen. 687851713.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Olagi Sagardotegia




Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

GERTU aholkularitza

TXEkin programarako homologatutako erakundea



Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92



Idiazabalgo 1977ko kinta

Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Aloña Iparragirre, Alaitz Otamendi, Eli Artola, Leire Etxarri, Irantzu Arrizabalaga, Alex Matxain, Iñaki Ugalde (irakaslea), Aritz Iparragirre, Aimar Reparaz, Jon Imaz, Aritz Ajuria, Arantxa Goiburu (irakaslea) eta Bittor Fernandez.

Tartean: Rosario Pedrazuela, Olatz Otaegi, Aloña Goiburu, Gotzone Mayoral, Mirella Santos, Asier Alberdi, Asier Albisu, David Diego, Ibon Ezizolaza, Xabi Lizarralde eta Rufino Insausti.

Aurrean: Alaitz Katarain, Lierni Galarraga, Eba Clavo, Iñaki Oiarbide, Andoitz Imaz, Iker Urkia eta Luis M. Bikuña.



MUJIKA
frutak - barazkiak
☎ 943 18 72 20 (biltegia) Plaza Nagusia, 6
☎ 943 18 77 14 (etxea) IDIAZABAL

ARANTXA
LENTZERIA- MERTZERIA
UMEEN ERROPAK
Jai zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 75 06
Bikuña Kalea, 1 IDIAZABAL

TAXI
☎ 629 65 41 65
IDIAZABAL

XUME TABERNAk
Festa onak opa dizkizue
Nagusia, 5 IDIAZABAL ☎ 943 18 70 35

Era naturalean elikatutako oiloen arrautza jarriberriak

Aricola SAN BLAS ARRAUTZAK

Atxu etxea, 27
☎ 943 187 458 (oilategikoa)
☎ 943 187 503 (etxekoa)
IDIAZABAL



*Urteari
hasera ona
emateko,
Goierriko
aurreneko
jaiak,
Sanblasak
ospatzera
gonbidatzen
zaituztegu
goierritar
guztiok.*



IDIAZABALGO UDALA

GARABI



Zubi-garabi
eta
jasogailuen
mantenimendu
eta
konponketa

*San Blas jai
zoriontsuak guztioi!*

Tel.: 943 187 300

Faxa: 943 187 357

E-posta: grua@garabi.com

<http://www.garabi.com>

Eziolatza industrialdea - B partzela, 1 Zkia.

IDIAZABAL

+60-35%




Sekulan ez duzu izan orain hainbat asti, era burutsu batean erabili ezazu, sasoi egoteak, zure bizitzaz eta zure ingurukoetaz gozatzen lagunduko dizu. Etzazu aukera hau galdu, sasoi bete-betea baitzaude. Gure esku dauden gauzetan lagunduko zaitugu, %35.eko beherapen bat eskainiz, eta kirol programaren bat aukeratuz gero, urteko mediku azterketa bat eskainiz. Denbora zure esku dago.



**Antzizar kiroldegian, %35eko beherapena
60 urtez gorakoentzat Zaindu zaitezzen
zaintzen zaitugu**



BEASAINGO UDALA



antzizar kiroldegia: Tel. 943 88 79 00
kirola=osasuna=ongizatea=antzizar kiroldegia